

GAZTE NAIZ

Parlamenteoak hutsik

Europa'ko parlamenteoak hutsik daude. Deputatuak ez dira biltzarretara azaltzen, eta, hori dala-ta, behin eta berriz egin behar dira botazio berberak ez erabakitzeo, botorik aski ezin bildurik!

Belgika'ko Parlamenteoak, esate baterako, (212 deputatu), xehetasun hauek eman ditu abenduan: arazo pixuak eta garrantzitsuak eztabaldatzeko deitua izan dalarik (libraren desbaliotzearen ondorioak hausnartzeko, besteren artean), belgikar deputatuak ez dira azaldu ere egin. Bilkura batera, azken hillabeteetako marka guziki urratuz, 68 deputatu bildu ziran (ia-ia hirutatik bat); baiña gaineraoetara 10 deputatutatik 38-tara baizik ez ziran agertu.

68 bilduen berezuntasun egin ezkerre, beraz, problemarik larrirenak aztertzeko hauek izan dira Belgika'ko deputatuen hutsigaiak:

Geheinek ... % 95,3 deputatu kanpoan
Gutxienik ... % 82,6 deputatu kanpoan
Hitz batez: hamar deputatutatik zortzi-bederatzi ez dira azaldu ere egin ohi parlamentora. Ikaslerik alperrenak baiño huxkorrafo!

Zer adierazten du horrek?

Egari ez-likusia egiteo izango litzake behar bada erosoena, eta fenomeno hau garrantzirik gabe dala sinistea. Hori egiteaz, noski XIX-gn., mendeko demograziaren moldeari eta ideari eutsi genizake beren hortan, eta kitto. Barne-asaldurik gabe betiko leloetan finkatu, eta aurrera.

Hori ez zait, ordea, bidezkoa iruditzen. Jendeak ez du parlamenteoan sifinisten... eta deputatuek berek ere ez! Hitz batez: demokrazia eta parlamentarisismoa bi gauza dira demon iritziz. Demokraziaren oinarria 1968-an parlamenteo hutsen jartzea ezifia litzateke. Demokrazia parlamentoko kinkan dago. Hau totalitarieok esaten dute, egin da; baiña totalitazio ez geranok ere bai.

Despolitizazioa aipa ditek, eta aipatu egin behar da bein batean; ez dago zalantzarik. Baiña kaka ez da despolitizazioa, demokrazia-mota baten heriotza baizik. Deputatu berriak herriak izendatu, eta demokrazia ba dagoela uste dutenek batetik; eta Irugarren Estadori antzifia Gortean atxikitzea aski izan zitekeala uste zutenek bestetik, antzifinakeri-kutsu berbera uzten dute gugan. Iriz horiek Kondairak berak erkatutako ditu, zuzenak ez diralako.

E T X A U N

Lengo illaren 4'eta 11'an ospatu zan bertsolariaren sarietan Urepe'go Xalbador'i Barkux'ko Etxaun'en gaia gertatu zitzaion. Bertsolari onentzat gai egokia eta gai onentzat bertsolari ona.

Xalbador'ek ongi ezagutzen ditu Piarres Topel'en bizi-tza eta nortasuna. Orregatik zion "Zuk aña sufri ta kanta duanik ez da izan Euskal errian".

Zoritxarez euskaldun gutxi ezagutzen dute bere bizi-tza. Sasi-mugaz aruzkoa dalako ote?

Onatx' berari buruz ondar aleto but. Barkux'en jaio zan 1786'an.

Aita gogor eta gaiztoa izan zuan. Bere antz gutxi ote zuan irudituzitzaion ta beste batena ote zan bururatu.

Etxean berorik ez eta maitasun billa asi zan. Neska beartsu bat atsegin zitzion. Txiroa zanez etzan Etxaun'en uitaren gogozkoa, arekin eskontzen bazan etxaldekorik etzuala izango esanaz bilduritu nai izan zuan.

Maitasunak nekea eskatu oi du geienetan; orduan izaten dira kontuak; orduan neurtzen da maitasunaren indarra.

Gure Etxaun'n ere ori gertatu zitzaion. Bere maitasuna aula zan nekearen garratzari aurka egiteko ta neskatxa us-tea pentsatu zuan, baita desesperaturik bere burua ilko ote zuan ere.

Lenengo erabakiari buruz zer esan? Neskatxari agur egin zion, bai. Orrela jokatu ezpala zoriotsuango izango zala deritzagu.

Piarres'en gurasoak au zarrena zanez, etxaun baserrira-ko neska aberats bat nai zuten eta Arritzabaleta'ko apaizaren illoba begiz jo.

Engrazi, 23 urteko neska lirainia izan bear zuan, ta Etxaun, nai ta maitasunik ez izan, 22 urte zituan egu-nea ezkondu zan.

Georges Balandier soziologiarik berriki esan zuena oso gogoan hartzeko da nere ustez; «Notre erreur est, souvent, de limiter la «politique» aux modes de gouvernement, aux partis et aux idéologies connus dans les sociétés industrielles avancées. D'ailleurs, dès que ces mécanismes perdent de leur emprise, nous y voyons une manifestation de «dépolitisation». Or c'est simplement un changement, (momentané ou permanent, des moyens d'expression du politique». Balandier'en iritziz, beraz, kaka ez da despolitizazioa.

Gaur Europa'ko parlamenteoak butsik baldin badaude, beste zerbaitean biltatu behar da giltzarria. Eta erroa oso sakonki azterkatu gabe agertzen da: XIX-gn. mendeko demokrazia-mota hura pasata dago. Gaur ba dugu demokraziaren kaka parlamenteo baino sakonago dagoela; eta ekonomia eta jakintza beheitik beretik zuzentzeko aukerarik ez duen «demokrazia», nahiz deputatuek parlamenteo oso hitzaldi onak egin ahal izan, ez dala demokrazia bat. Horregatik hustutzen dira parlamenteoak.

Bestetik ere amets bat da edonork edozertaz funtsezko iritzirik eman dezakeanik pentsatzea. Parlamenteo eztabaldak tekniko bihurtzen diran uztik beretik, gauza ez dirala ikusten dute deputaturik geheinak; eta ixildu egiten dira, edo... iges egiten.

Teknokrata hutsak, horregatik, gero eta maizago mintzo, horregatik, gero eta maizago mintzo dira politikariren ordez. Herriak jasaten duen politika parlamenteo ez dagoen maila batean osatzen da.

Soluzioa, beraz, ez da guk ezagutu dugun politikari hitz-otz oparo eta ez-ikasi hari eustea. Ez. «Ongi hitzegiten dakien» deputatuak ezer gutxi egin dezake gaur herriaren alde, edo teknokraten hozkeriaren kontra. Gero eta gutxiago. Mamutuko ote zaigu bada? Teknokratik gizataru eta politikaririk tekniketaren eskolatu: horra hor, nere ustez, bide bakarra.

Parlamenteoan kinkari, politikari «kalakari» en kinka dagoio. Politikan agindu ahal izateko jakin egin behar da, eta gizona beti aurrean izan.

Gertakari hauetan, beraz, ba dugu guk, euskaldunok, zertan gogoeta egilnik.

LARRESORO

Pompeu Fabra

(1868-1968)

Aurten betetzen dira eun arte katalan izkerazale jakin-tzu au jaio zanetik.

Urte muga au dala-ta oroimen gorasare mereziak egiten arfi zaizkiote Cataluña'n. Aldizkari ta paperak aren idazlan eta gora-berak gogoraztzen dituzte. "Destino" as-tekoriak banako berezi bat eskeñi dio. Katalandarrok ez dute auztu nai Pompeu Fabra'k katalan izkeraren alde ur-teen buruan egin zuana. Batik bat katalan izkuntzaren ba-tasunaren alde. An ere idaztanka, itzen bukaera, orto-grafia ta abar, idazleen artean eztabaida ta burruka zen-billen. Pompeu Fabra gramatikari zorrotz, sakon eta zen-tzuduna zan eta onela Mancomunidad zalakoak, «Institut d'Estudis Catalans» sortu zualarik Fabra jarri zuan buru. Au 1912 garren urtean gertatu zan. Urte gutxi barru burruka batzuen ondoren katalaneraren batasun geiena egin zan. Egia da Mosen Alcover eta beste zenbait idazle zaar aurka izan zituala. Azkenean, ordea bat egin zuten, Fabra'k ere amore ematen bear zanean, ba-zekian eta bere ber-ritzearekin aurrera joan zan.

«Normes Ortografiques» geienak ontzat artuak izan di-ra geroztik.

H letraren aurkakoa zan Fabra eta auzi au ez da orain-dik garbi erabaki, baiñan idazle berriak erabat kentzeko asmoak dituzte.

Pompeu Fabra Bilbo'n bizi izan zan 1902-1912 urte bi-tartean Ingenieros Industriales Eskola aundiaren Kimika irakasle.

Ez zuan, damurik, orduko euskaltzaleekin ezaguera aun-dirik.

Bilbo'ko «Lyon d'Or» kafeetxean biltzen ziran «intelec-tualekin» bakarrin izan zuan zerbaite ar-emana Esateko adiskide bakarra gure D. R. M. Azkue izan zuan eta 1921 urtean Euskaltzaindia eratueta gero katalanak dei egilnik «Institut d'Estudis Catalans» etxera ikustaldi bat egitera joan zan.

1922 garrengo «Euskera» aldizkarian bixita aren berri ematen digu «Institut hura nola zegoen eratuia adieriaz. Geroztik Politika gora-bera asko gertatu dira baiñan, zo-rionez, «Institut» dalako zutik dago oraindik, nai ez oso indartsu. Gaurko idazkari D. Ramón Aramon jauna du. Nere iritzian gure Euskaltzaindia ta «Institut» dalakoaren artean ar-eman geiago izateko onura garri litzake. Zer ikasia beti izango genuke. Ezen, Pompeu Fabra'k eta gure R. M. Azkue'k euskerarekin egin nai izan zuan lana antzekoak bait dira. Euskeraren batasuna ez da berealakoan egiteko; baiñan ezin ukatu aurrerapenik egin ez danik. Aurten bide ortatik beste bultzakada bat eman bear genuke. «Euskal tzaindia» urre-ertzialak ospatzen dituala-ta (1918-1968) ego-kiera ona datorkigu.

«Oñati batzarandi bat egiteko da. Eta batzar ortatik zirt edo zart batasun-urratz sendo eta zeatz batek irten bear du aurrera bidean.

Pompeu Fabra katalanertzat izan zana R. M. Azkue'k izan bear du guretzat. Ez gaitzen izan egoskor eta bai eskurakoi.

ANTONIO M. LABAYEN

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10 - Urrut. 17751 Etxekoa 22700 — DONOSTIA

ARANTXA Oñetakoak

Emakumentzat bakarrik

Oñetarako bereziak «OÑAK SENDATZEKOAK»

Plaza de los Luises, 2 (Esquina Zabaleta)

SAN SEBASTIAN

ERAMAN - EKARRI'rako

AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL IRRATSAIOAK

ERRI GUZTIRAKO

Iparragirre, 8 - DONOSTIA